# Bestelako Xedapenak

## KULTURA SAILA

**5082**

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 26koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Idiazabalgo (Gipuzkoa) Urbizugerriko edo Urbizu baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Idiazabalgo Urbizugerriko edo Urbizu baserriak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Idiazabalgo (Gipuzkoa) Urbizugerriko edo Urbizu baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

***Bigarrena.–*** Idiazabalgo Urbizugerriko edo Urbizu baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendeaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

***Hirugarrena.–*** Ebazpen hau interesdunei, Idiazabalgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen,

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

**5082**

RESOLUCIÓN de 26 de julio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Urbizugerriko o Urbizu de Idiazabal (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Caserío Urbizugerriko o Urbizu de Idiazabal y atendiendo a la propuesta de Resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

***Primero.–*** Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Urbizugerriko o Urbizu de Idiazabal (Gipuzkoa), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

***Segundo.–*** Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Urbizugerriko o Urbizu de Idiazabal (Gipuzkoa) para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

***Tercero.–*** Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Idiazabal y a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así

Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

***Laugarrena.–*** Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 26a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Ekialdean, baserriaren ekialdeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 18 metrora trazatua. Espazio horretan sartu dira, halaber, baserriko etxe-aurreak eta bozadera edo putzu osagarria baina exentua.

Iparraldean, baserriaren iparraldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 30 metrora trazatua.

Mendebaldean, baserriaren mendebaldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 30 metrora trazatua.

Azkenik, hegoaldean, hegoaldeko fatxadarekiko paraleloa den lerro bat, baserritik 35 metrora trazatua. Azken 35 metro horietan dago, hain zuzen, Urbizuko auzoa Idiazabal eta Ormaiztegirekin lotzen dituen gurdibide publikoa.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatutako mugaketaren arrazoia da Urbizugerriko baserriaren inguruak duen balioa babestu behar dela, bai ingurumenaren ikuspegitik eta baita ikusteko duen balioa dela-eta. Baserria Urbizuko landa-auzo txikian kokatuta dago, muino zabal batean. Ingurunearen mugaketak, katalogatutako ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko beharrezkoa, baserriaren inguruko lurrak eta eraikinerako sarbidea babestea du helburu, baserriaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

***Cuarto.–*** Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I

Delimitación.

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Este una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 18 metros de distancia. En este espacio se incluyen las antepuertas del caserío y una pozadera aneja y exenta a él.

Al Norte una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 30 metros de distancia.

Al Oeste una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 30 metros de distancia.

Y, finalmente, al Sur, una línea paralela a la fachada del caserío y trazada a 35 metros de distancia. En estos 35 últimos metros se incluye el camino carretil público, que se dirige de esta barriada de Urbizu a Idiazabal y Ormaiztegi.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Urbizugerriko, situado en una ancha loma, en el pequeño barrio rural de Urbizu. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien inventariado implica la protección de los espacios adyacentes al caserío, ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.


ESKALA / ESCALA
50 25 0 50 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
URBIZUGERRIKO
BASERRIAREN MUGAKETA
Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerria / Municipio: IDIAZABAL
Data / Fecha: 25/03/201
Eskala / Escala: 1:2.000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Familia bakarreko baserria da, oinplano angeluzuzena duena. Bi isuriko zurezko estalkia dauka, nabateila mekanikoekin egina. Teilatu-gailurra, berriz, ekialdera begira dagoen fatxada nagusiarekiko perpendikularra da. Bi solairu eta ganbara txikia ditu.

Bost ardatz-zutabek eusten diote fatxada nagusiari. Haien baoak harlangaitzez estalita daude beheko solairuan eta lehenengo solairuko alboetako zati batean. Lehenengo solairuko erdiko aurpegian egurrezko egitura eta harlangaitzezko betegarria dauzka, eta gainaldea apur bat kareztatua. Horma pikoa, bai eta bi alboetako estalkipea ere, irekiak dira. Sarrera nagusia bi orriko zurezko atea da; orri horietako bat zatituta dago. Leiho-bao irregular batzuek osatzen dute fatxada. Halaber, mahats-parra batek fatxada nagusi ia osoa estaltzen du. Hegoaldeko fatxadak harlangaitz-lanak ditu beheko solairuan eta harri-hormak, bilbadurekin, bigarrenean. Egurrez inguratutako leiho-bao txiki bat, estalkipean, eta beste bao bat beheko solairuaren parean: horra hor ikus daitezkeen hutsune bakarrak. Iparraldeko fatxada ere harlangaitzez eraikia dago, eta haren itxura arestian deskribatutakoaren oso antzekoa da. Mendebaldeko fatxada harlangaitz biluzizkoa da; bi orriko sarrera-atea eta leiho txikiren bat ditu beheko solairuan. Bigarren solairuan harriz inguratutako hiru leihotxo simetriko daude.

Zurezko 15 zutoinek osatzen dute eraikinaren zurajea. Horietako batzuek sekzio handia dute, eta oso ongi gorde dira (zutoineko bat dolare gotiko baten bernia berrerabilia da). 15 horiei, fatxada nagusiko bostak gehituta, baserriak, guztira, 20 zutoin ditu. Baserriko zuraje bikainaren muina dira. Hain zuzen, zutoin, habe eta zenbait gapirio-lan eta jabaloik (miruen buztanak irudikatzen dituzte) osatzen dute zurajea.

Baserriko ataria, egun, itxita dago; ekialdeko fatxadan dagoen sarrera nagusitik sartzen da hara. Atariko zorua harrizkoa da, eta zati bat porlanez estalita du. Beheko solairuan, gainerako zorua lur naturalezkoa da. Atariko sektore batek ez du lehenengo solairua gainean, eta, hortaz, estalkipetik lurreraino irekita dago. Beste zati batean (hego-ekialdeko sektorea) gapirio onak eta harri-hormazko barne-murruak ikus daitezke. Zati horrek, hain zuzen, habe bati eusten dio, zurezko friso mihiztatu ederra duela. Ataritik iristen da beheko solairuko hego-ekialdeko aldean dagoen sukaldera. Sukaldeak bi atal ditu. Gaur egun, su txikia du, baina antzina ganbara zuen. Ganbara horrek bi zati ditu, eta hormak ohol mihiztatukoak dira, forjazko iltzez josiak. Bi zati horiek, hain zuzen, oholerian egindako puntu erdiko arku-itxurako baoaren bidez lotzen dira.

ANEXO II

Descripción.

Caserío unifamiliar de planta rectangular. Cubierta de madera a dos aguas con caballete perpendicular a la fachada principal de orientación E, de teja canal mecánica. Consta de dos plantas y corto desván.

La fachada principal se levanta con cinco postes-ejes cuyos vanos están rellenados con mampostería en la planta baja y en parte de los laterales de la primera planta. El frontis central de la primera planta presenta entramados de madera y relleno de mampostería, con un ligero encalado en su superficie. El hastial es abierto, así como el bajo cubierta en ambos laterales. La puerta central de acceso es de madera de doble hoja, una de ellas de hoja partida. Unos vanos de ventana irregulares completan la fachada. Una parra de vid cubre esta fachada casi en su totalidad. La fachada S es de mampostería en planta baja y mampostería con entramados en la segunda planta. Un pequeño vano de ventana recercado en madera en el bajocubierta y otro vano a la altura de la planta baja son los únicos huecos existentes. La fachada N, construida también en mampostería, tiene una disposición bastante similar a la anteriormente descrita. La fachada W es asimismo de mampostería desnuda y presenta una puerta de acceso de doble hoja además de alguna pequeña ventana en la planta baja. En la segunda planta posee tres ventanucos simétricos recercados de piedra.

La armadura del edificio se levanta sobre 15 postes enterizos de madera, algunos de ellos de gran sección, además de muy bien conservados (uno de los postes es una bernia de lagar gótico reutilizada), que sumados a los 5 postes de la fachada principal, suman 20 postes, que son los ejes de una soberbia armadura formado por los citados ejes, vigas, distinta solivería y tornapuntas, que presentan largas colas de milano.

Al zaguán del caserío, hoy cerrado, se accede desde la entrada principal, situada en la fachada E. En este zaguán el suelo es de piedra, en parte recubierto de cemento. El resto del suelo de la planta baja es de tierra natural. En el zaguán, un sector está desprovisto de la primera planta, estando por tanto abierto desde el bajo cubierta hasta el suelo. En otra zona (sector SE) se aprecian buenos solivos y muros interiores de mampostería. Sobre ésta se apoya una viga en la que se ajusta un magnífico friso de madera machihembrada. Del zaguán se accede a la cocina situada en el sector SE de la planta baja. Esta cocina, compuesta por dos departamentos, posee hoy fuego bajo, pero en otro tiempo poseyó un desván que presenta dos departamentos cuyas paredes son de tablazón machihembrado y cosido con clavazón de forja. Ambos departamentos se comunican a través de un vano con arco de medio punto practicado en el tablazón.

Eraikinak Erdi Aroan du jatorria, eta XVI. mendearen lehen laurdenekoa da; habedun dolarea zuen. Geroago aldaketak izan zituen egituran. Dolarearen zati bat galdu zen, eta egun dituen itxura eta banaketa eman zitzaizkion.

Este es un edificio de origen medieval datado en el primer cuarto del siglo XVI, dotado con lagar de viga. Posteriormente sufrió algunas alteraciones en su estructura, perdiendo parte del lagar y adquiriendo la forma y distribución actual.